



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 203/2017

Ondarearen gaineko Zergaren eta Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren alderdi jakin batzuk arautu eta arau xedapen batzuk aldatzea, horien edukia Arabako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzeko Foru Araura moldatu dadin.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiak irailaren 20ko 18/2017 Foru Arauak, Arabako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzekoak, ezartzen duen edukira moldatzea da Foru Dekretu honen xedea. Halaber, Ondarearen gaineko Zergarekin eta Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergarekin lotutako arau xedapenak ere jaso dira.

Horretarako, xedapen orokor honek lau artikulua garatu ditu. Lehen artikuluan Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga jorratu da. Horrekin lotuta, bereziki garatu da irailaren 20ko 18/2017 Foru Dekretutik jasotako agindua, oinordekoa izendatzeari buruzkoa, ondasun eta eskubideak unean bertan eskualdatuta.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, Ondarearen gaineko Zergan eta Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan egondako aldaketa nagusiak aitorpena aurkezteko betebeharrekin lotuta daude.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Aldatzea azaroaren 29ko 74/2006 Foru Dekretua, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Araudia onartzeko dena.



Azaroaren 29ko 74/2006 Foru Dekretuan, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Araudia onartzeko den horretan, honako aldaketa hauek sartu dira:

Bat. 3. artikuluari g) letra gehitu zaio; hona:

“g) Foru komunikazioa desegitean alargundutako ezkontidearen alde edo izatezko bikotekidearen alde (bikotea Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorriz eratu bada) jakinarazitako ondasunen erdia ordaintzeko egiten diren adjudikazioak.”

Bi. 5. artikulua honela gelditu da idatzita:

“5. artikulua. Zerga egitatea.

1. Ondokoak zerga egitateak izango dira:

a) Ondasunak eta eskubideak jaraunspenez, legatuz edo oinordetzako beste tituluren baten bidez eskuratzea.

b) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta “inter vivos” negozio juridikoz eskuratzea.

Doako eta “inter vivos” negozio juridikotzat hartuko da uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten jaraunspeneko oinordetza eskubideak xedatzearen ondorioz, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat.

c) Bizitza aseguruaren kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, baldin eta kontratugilea onuraduna ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 18.a) artikuluan berariaz araupetutako kasuetan izan ezik.

2. Aurreko idatz zatiko a) letran aipatuta dauden eskuraketak kausatzailea hiltzen den egunean hartuko dira gauzatutzat, edo ez dagoen pertsonaren heriotzaren aitorpenak irmotasuna eskuratzen duenean, Kode Zibilarren 196. artikulua arabera. Hori dela eta, zerga eskatzeko nahikoa izango da eskualdaketaren egitate sortzailea frogatuta egotea; agiriak, inbentarioak edo banaketak egin ez edo autolikidazioa aurkeztu ez bada ere.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ezingo zaie aplikatu jaraunspenezko eskuraketei, baldin eta berauek eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen, oinordetza eskubideei uko egiteko oinordetza itunen edo komisarioak edo gozamedun ahaldunak testamentu ahalordea baliatzearen ziozko ekitaldien, edo botere hori iraungitzen duen edozein arrazoien ondorio badira, edozein izanda ere azken horiek hartzen duten forma.”

Hiru. 6. artikulua honela gelditu da idatzita:



“6. artikulua. Oinordetza tituluak.

Jaraunspenaz eta legatuaz gain, honako hauek dira, besteak beste, oinordetza tituluak zerga honen ondoreetarako:

- a) “Mortis causa” dohaintza.
- b) Oinordetzako kontratuak edo itunak, eragina noiz duten gorabehera.

Hala, oinordekoa izendatzen denean, unean bertan ondasun eta eskubideak eskualdatuta, zerga ondoreetarako oinordetza titulutzat har dadin, ondasunen eta eskubideen titularrak horien oinordetza agintzeko borondatea duela egiaztatu beharko da.

Oinordetza agintzeko borondatea azaldu ezean, eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza ituna doako eta “inter vivos” negozio juridikotzat hartuko da.

Ondore horietarako, oinordetza agintzeko borondatea azaldu dela ulertuko da, baldin eta kausatzaileak oinordekoa(k) izendatzen bad(it)u bere ondasun eta eskubide guztien gainean, unean bertan ondasun eta eskubide batzuk soilik eskualdatu arren.

Era berean, oinordetza agintzeko tresna horrek izaera berbera izan beharko du, hau da, borondate hori oinordetza itunean jaso behar da.

Oinordekoa izendatzean, unean bertan eskualdatuta ondasun eta eskubideak, ez badira ondasun eta eskubide guztiak sartzen, doako eta “inter vivos” negozio juridikotzat hartuko da.

Halaber, doako eta “inter vivos” negozio juridikotzat hartuko da oinordekoa izendatzea, ondasunak eta eskubideak unean bertan eskualdatuta, baldin eta ondasuna edo eskubidea eskualdatzaileari edo beste pertsona edo erakunde bati itzultzeko aurreikusten bada edo halako baldintzak ezartzen badira.

- c) Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta erakundeek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea eraxkitzeko balio duten egintzak, haien modalitatea edo izena edozein izanik, baldin eta Foru Dekretu honen 5. artikularen 1. idatz zatiko c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan berariaz xedatuta ez badago kopuru horiek jasotzeagatik zerga ordaindu beharra.
- d) Testamentu betearazleei beren lana egiteagatik testamentugileek esleitutako kopuruak jasotzeko eskubidea eraxkitzeko balio dutenak, baldin eta haiek jaraunspen ondasuntzaren balio egiaztatuaeren ehuneko 10 gaintitzen ez badute.
- e) Komisarioak testamentu ahalordea erabiltzetik datozen egintzak; berdin da zein itxura hartzen duten.



f) Jaraunspen baten oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunak, jaraunspenaren kausatzailea bizirik dagoenean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. idatz zatiko lehen tartekian araututakoak.

Oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunetan, uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea doako eta “inter vivos” negozio juridikotzat hartuko da, izendatzailea hil ondoren ere, ezertan eragotzi gabe oinordekoei legokiekeen zerga ordainketa.

Oinordetza eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea bakarrik hartuko da oinordetza titulutzat honako kasuetan: eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunak aipatutakoetan, aurreko b) letrak zehaztutakoetan, alegia. Bestelakoetan “inter vivos” eta doako negozio juridikotzat hartuko da.”

Lau. 7. artikulua egungo edukia 1. idatz zatira pasa da, eta 2. idatz zatia sortu eta gehitu da. Hona hemen:

“2. Foru Dekretu honen 5. artikuluko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen diren doako eta “inter vivos” negozio juridikoen artean ez dira inola ere likidatuko Foru Dekretu honen aurreko 6. artikuluan ezarritakoaren arabera oinordetza titulu gisa zehazten diren negozio juridikoak edo egintzak.

Kontratu edo egintza horiek likidatzeko, Foru Dekretu honen 5. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen diren jaraunspen, legatu edo bestelako oinordetza tituluen bidez eskualdatutako ondasun eta eskubideak eskuratzearen ziozko ondare irabazietarako ezarritako arauak beteko dira.”

Bost. 19 bis artikulua erantsi da; hona:

“19 bis artikulua. Epeen zenbaketa, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunetan.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunei dagokienez, Foru Dekretu honen 15-18 artikuluetan jasotako epeak zenbatzeko erreferentziatzat hartuko da eskualdaketa egiten den unea, betiere artikulua horretan jasotako ezarpenak aplikatze aldera.”

Sei. 24. artikuluari 3. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“3. Era berean, artikulua honetako aurreko idatz zatietan ezarritakoa aplikatuko da: ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa bada —ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dago— eta aseguru hildako ezkontideak edo izatezko bikoteko kideak irabazitako ondasunen edo harengandik datozen ondasunen kargura kontratatu bada, betiere, azken kasu horretan, ondasunen foru komunikazioa finkatu egin bada, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 132. artikuluan ezarritakoarekin bat.”

Zazpi. 27. artikulua honela gelditu da idatzita:

“27. artikulua. Sortzapena.



1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan eta bizieta aseguruetan, kausatzailea edo aseguratuak hiltzen den egunean sortuko da zerga, edo, hura falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibilaren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen kasuan eta Zergaren Foru Arau honen 7.1.a) artikuluan uko egiteko definitzen diren oinordetza itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean.

2. Dohaintzaren edo beste kostu gabeko eta “inter vivos” negozio juridiko batzuen ondoriozko eskuraketetan, egintza edo kontratua sorrarazten edo egiten den egunean sortuko da zerga. Kontratugileak edo aseguratuak bizirik iraunez gero biziaren gaineko aseguru baten onuradunak kopururik eskuratzen badu, onuradunak jaso beharreko lehenengo kopurua edo bakarra eskatu ahal duen egunean hartuko da sortutzat egintza edo kontratua.

Zergaren Foru Arauaren 7.1.a) artikuluan ezarritako salbuespenetan eta 7.1.b) artikuluko bigarren lerroaldean ezarritakoaren ondorioz “inter vivos” negozio juridikotzat jotzen diren ondasun eta eskubide eskuraketetan, eskualdatzea gertatzen den egunean sortuko da zerga.

3. Ondasunen eskuraketaren eraginkortasuna baldintza, termino, fideikomiso edo beste mugaren baten zioz etenda dagoenean, eskuraketa muga desagertzen den egunean gauzatzat joko da, eta egun hori hartuko da aintzat ondasunen balioa eta karga tasak zehazteko.

4. Gozamen ahalduaren edo testamentu ahalordearen bidez gauzaten diren jaraunspenetan, zerga hala sortuko da:

a) Gozamen ahalduak edo testamentu ahalordeak ukitzen ez dituen ondasun eta eskubideen eskuraketetan, zergaren sortzapenari buruzko arau orokorraren arabera, hau da, artikulua honetan goragoko idatz zatietan azaltzen den arau orokorraren arabera.

b) Gozamen ahalduak edo testamentu ahalordeak ukitutako ondasun eta eskubideei dagokienez, zerga noiz sortzen den zehazteko, ondoko kasu hauek bereizi behar dira:

1º. Ondasun edo eskubideen eskuraketaren kausa gozamen ahalduari edo komisarioari eratxikitako xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea baliatu izana bada, (edo haiek esleituta eduki dezaketen beste edozein ahalmen baliatu izana, horrela zerga honen zerga egitatea sortzen bada), zerga sortuko da ahalorde edo ahalmen hori osorik edo zati batean baliatzen den egunean.

2º. Gozamen ahalduak edo testamentu ahalordeak ukitzen dituzten ondasun edo eskubideen eskuraketetan, baldin eta xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea iraungiak badira haiek osorik edo zati batean baliatu aurretik, zerga sortuko da ahalmena edo ahalordea iraungitzea dakarren zirkunstantzia izaten den egunean.

3º. Gozamen ahalduak badago, eta testamentu ahalordea egonez gero, ahalordea baliatzen ez den bitartean pertsona jakin batek jaraunspeneko ondasun edo eskubide guztien edo horietako batzuen gozamenerako eskubidea badu, xedatzeko botere edo ahalmena baliatzen ez duen heinean, gozamenerako eskubideari dagokion zerga sortuko da gozamena eratu duena hiltzen den egunean edo,



hura falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den egunean, Kode Zibilaren 196. artikulua arabera.

5. Izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza eskubideak, “inter vivos” edo “mortis causa” egintzen bidez, doan xedatzen direnean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 106. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga ez da sortuko izendatzailea hiltzen den egunera arte.”

Zortzi. 28. artikulua 1. idatz zatia honela geratu da:

“1. Administrazioak likidazioaren bitartez zerga zorra zehazteko duen eskubidea eta zergen arloko zehapenak ezartzeko ekimena bost urteren buruan preskribatuko dira.”

Bederatzi. 30. artikulua 2. idatz zatia honela geratu da:

“2. Zergaren Foru Arauaren edo Foru Dekretu honen arabera araubide berezia duten erakundeei ez zaie aplikatuko aurreko zenbakian xedatutakoa. Halaxe gertatzen da, hain zuzen ere, gozamen ahalduaren edo testamentu ahalordearen zioz gauzatzen diren jaurespenen komisarioekin edo gozamedun ahalduarekin.

Ekainaren 25eko 5/2015 Legean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu ahalordeetatik datozen gozamen eskubideak eraenduko dira horietarako Zergaren Foru Arauan eta Foru Dekretu honetan berariaz ezarritako arauen bidez.”

Hamar. 31. artikulua honela gelditu da idatzita:

“31. artikulua. Bizirik dagoen ezkontideak uko egitea.

Irabazpidezko sozietatearen edo ondasunen foru komunikazioaren araubidearen emaitzako ezkontza sozietatearen ondore eta ondorioetarako bizirik dirauen ezkontidearen uko egiteak uko egin dien ondasunak hildakoak utzitako ondasuntzaren zati izatera pasatzea eragin dezan, zerga likidatzeari begira, beharrezkoa izango da eskritura publiko bidez ukatzea, kausatzailea hil baino lehen, Zergaren Foru Arauaren 34. artikuluko betebeharrak betetzeaz gain. Baldintza horiek betetzen ez badira, zerga kobratuko zaie ukoaren onuradunei, uko egileak haien alde dohaintza egiteagatik.

Idatz zati honetan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.”

Hamaika. 33. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak honela geratu dira:

1. Zergaren Foru Arauaren 36. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako kostu gabeko eskualdaketak eta dohaintza emaileak dohaintza hartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza eskualdaketak, salbu eta Foru Arau honetan



salbuetsizat jotzen diren ondasunen «mortis causa» eskuraketak badira, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga kuota zehazteko orduan, betiere baldin eta horien arteko epea ez bada hiru urte baino luzeagoa. Zerga kuota zerga oinarri guztiak batuz lortuko da. Metatutako eskuraketengatik lehendik ordaindutako kuotak kendu ahal izango dira ingresatutakotik, eta, hala dagokionean, ingresatutako osoa edo zati bat itzuli beharko da.

2. Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, metaketa egiteko batu egin behar da azken eskualdaketari dagokion sortzapenaren egunaren aurreko hiru urteetan eskuratutako ondasun edo eskubideen balioa.

Zergaren Foru Arauaren 36. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako dohaintzak edo kostu gabeko eskualdaketak ezkontide biek ezkontza sozietatearen ondasun komunak erabiliz egin badituzte, metaketak bakarrik eragingo dio kausatzaileari egotzi ahal zaion balioaren parte proportzionalari, eta kengarria izango da dohaintzari edo parekagarria den kostu gabeko eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia.

Metatutako eskuraketak egin ziren egunean egiaztatu zitzaizen balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Aurreko idatz zatietan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.”

Hamabi. 34. artikuluari 5. zenbakia gehitu zaio; hona:

“5. Gozamen ahalduari edo testamendu ahalordeari lotutako jaraunspenetan, jaraunspenaren gozamen ahalduak edo komisarioak zerga aitortpena aurkeztu behar du, kausatzailea zendu dela egiaztatuz. Aitortpen horretan, komisarioak edo gozamen ahalduak ezinbestean bete beharko du Zergaren Foru Arau honen 38 bis artikulua ezarritakoa.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren jaraunspenetan, gozamenaren eskubideagatiko eta testamendu ahalordeak edo gozamen ahalduak ukitutako ondasunegatiko gozamen ahalduaz edo komisarioaz bestaldeko zergadunek ezingo dute autoliquidaziorik aurkeztu, harik eta testamentu ahalordea edo xedatzeko ahal modu ezeztazinean erabili arte –partzialki zein osorik–, edo hura azkentzeko dauden beste arazoietako bat gertatu arte.”

Hamahiru. 37. artikulua 1. idatz zatia honela geratu da:

“37. artikulua. Aurkezteko epea.

1. Arau orokorrak:

Subjektu pasiboek autoliquidazioa aurkeztuko dute. Kasuan kasu, zerga zorra honako epeen barruan sartuko dute:

1ª Dohaintzak eta bestelako kostu gabeko eta “inter vivos” eskualdaketak direnean, autoliquidazioa aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da, zerga egitea gertatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



2^a Heriotzaren ondoriozko eskuraketen kasuan, bizitza aseguruaren kontratuen onuradunenak barne hartuta, autolikidazioa aurkezteko epea sei hilekoa izango da, kausatzailearen heriotzaren biharamunaren hurrengo egunetik edo heriotzaren adierazpenak irmotasuna hartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori bera aplikatuko zaie gozamenaren heriotzaren aurreko gozameneko eskuraketei ere, jabaria zatibanatzea “inter vivos” ekintzen bidez egin bada ere.

Testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden ondasun eskuraketetan, ahala baliatzen den egunean edo hura iraungitzeko beste kariren bat gertatzen den egunean hasiko da zenbatzen autolikidazioak, eta, hala badagokio, agiriak aurkezteko epea.

Unean bertan eskualdatzen diren ondasun edo eskubideak dituzten oinordetza tituluak edo euskal zuzenbide zibileko gainerako espezialitateak badira, autolikidazioa aurkezteko epea sei hilabetekoa izango da, zerga egitatea sortu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.”

Hamalau. 45. artikulua honela gelditu da idatzita:

“45. artikulua. Komisarioaren betebeharrak testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko jaraunspenetan.

1. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko jaraunspenetan, komisarioak 6 hilabeteko epea du, kausatzailea hiltzen den egunetik aurrera edo Kode Zibilaren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera heriotza adierazpenak irmotasuna hartzen duenetik aurrera, jaraunspenetako ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiriak aurkezteko. Gainera, Zerga Administrazioak egoki irizten duen beste edozein agiri aurkezteko eskatu diezaiok.

2. Komisarioak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspeneko ondare elementuen inbentarioan gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare aldaketa horiek ez badute Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten. Komunikazio hori ondare aldakuntza gertatzen denetik hilabete igaro aurretik aurkeztu behar da; berarekin batera, aldakuntzaren frogagiriaren kopiak aurkeztu behar dira.

Komunikazio horretan berariaz adierazi beharko da eskualdatzen diren ondasun eta eskubideen, eta, hala badagokio, horien ordez eskuratzen diren ondasun eta eskubideen identifikazioa. Komisarioak aurreko lerroaldean aipatzen diren aldaketak jakinaraziko ditu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren Foru Aginduak ezartzen dituen eredu, epe eta lekuetan. Informazioa ematen duen aitortpen hori aurkezteko, bitarteko telematikoak erabili ahalko dira.

3. Era berean, hilabeteko epean, testamentu ahalordea modu ezeztazinean –hala partzialki nola osorik– erabiltzen den egunetik edo hura iraungitzeko arrazoietakoa bat gertatzen den egunetik aurrera, komisarioak aurreko alderdi horien berri eman behar dio Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu behar dio, edo, bestela, ahalordea iraungi dela justifikatu.



Komunikazio horretan beti agertu behar da, beren-beregi, testamendu ahalordearen erabilerak edo iraungipenak eragiten dien ondasun eta eskubideen identifikazio zehatza. Ondasun eta eskubideok adjudikatu zaizkien kausadunen nortasun datuak ere jarri behar dira, eta jaraunspeneko eskuraketa horiengatik ordaindu beharreko zergaren sortzapen eguna ere bai.

4. Artikulu honetan ezarritakoa gozamendun ahaldunari ere izango zaio aplikagarri.”

2. artikulua. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegia onartzen duena.

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duena, aldatu egin da; hona aldaketak:

Bat. II. tituluaren III. kapituluaren bigarren sekzioan artikulua bat sartu da, 38 bis artikulua, hain zuzen. Hona hemen:

“38 bis artikulua. Besteren kapitalak, dohainik lortutakoak, hirugarrenei lagata lortutako kapital higigarriaren etekinak.

1. Zergadunaren heriotzaren zioz artikulua honetan aipatutako besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzeko duten aktiboak kostu gabe eskualdatzen badira ulertuko da ez dagoela kapital higigarriaren etekinik, eta ez da kapital higigarriaren etekin negatiborik konputatuko kostu gabeko “inter vivos” eskualdaketa onduz.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da kostu gabeko eskualdaketa egiten denean komisarioak testamentu ahalordea, gozamen ahalduna edo eraginkortasuna unean bertan duen edozein oinordetza titulu erabiltzearen ondorioz. Hori dela eta, oinordetza tituluak zein diren Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7. artikuluan ezarri da.

3. Aurreko idatz zatian aipatu diren kostu gabeko eskualdaketa, alegia, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza tituluen bidezko kostu gabeko eskualdaketa, besteren kapitalak erakarri eta erabiltzea ordezkatzeko duten aktiboaren eskualdatzaileari dagokionez, eskuraketa balioa, hurrengo eskualdaketa, dohaintza emaileak aktibo horiek dohaintza hartzaileari ematean duten balioa izango da, dohaintza hartzaileak aktiboak dohaintza emailea hil aurretik eskualdatu ezean. Izan ere, hala gertatzen bada, dohaintza hartzailea dohaintza emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuraketa balio eta datei dagokienez, eta azken horrek eraginkortasuna unean bertan duen oinordetza itunaren aurretik zituen balio eta data atxikiko ditu.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa kasu honetan ere aplikatuko da: aktiboak amortizazioa dela eta edo mugaegunera iristeagatik edo iraungitzeagatik dohaintza emailea hil aurretik eskualdatzen direnean.”

Bi. III. tituluari VIII. kapituluak gehitu zaio. Hona hemen:

“VIII. KAPITULUA- ERRENTAK ERATXIKITZEA



55. bis artikulua. Errentak eratzikitzeko araubidean ez dauden erakundeak.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenei inolaz ere ezin zaie aplikatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritako etekinen eratzikipenaren araubidea.

2. Errenten eratzikipenaren araubidea ezin zaie aplikatu testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenen etekinei, ondareko irabazi eta galerei eta errenta egozketei; horiek Zergaren Foru Arauaren 12. artikuluko 6. idatz zatian eta Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

55 ter artikulua. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenen etekinak, ondareko irabazi eta galerak eta errenta egozketak.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenen etekinak, ondare irabaziak eta galerak eta errenta egozketak jaraunspeneko ondasunen gozamendunei eratzikiko zaizkie, beraien jatorriaren edo iturburuaren arabera, baldin eta, kausatzaileak berak aginduta edo Euskal Zuzenbide Zibileko legeria aplikatuta, ondasunen eta eskubideen gainean pertsona jakin batentzako edo batzuentzako gozamen eskubidea ezarri bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Zergaren Foru Arauaren 35. artikuluan aipatzen diren kapital higigarriaren etekinak eta ondasunak edo eskubideak eskualdatzearen ondorioz eskuratutako ondare irabaziak eta ondare galerak, baldin eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenen baitako besteren kapitalen erakarpena eta erabilera ordeztzen dituzten aktiboak eskualdatuz lortzen badira, eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, jaraunspenari berari eratzikiko zaizkio, eta Zergaren Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

Zergaren Foru Arauaren 12. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe, jarduera ekonomikoen etekinak izaera horrekin egotziko zaizkio gozamendunari, jarduerari atxikitako ekoizbideen eta giza baliabideen norberaren konturako antolamenduan zuzenean, pertsonalki eta maiztasunarekin parte hartu zein ez.

2. Gozamen eskubiderik ezarrita ez duten ondasun edo eskubideen ondoriozko errenten egozketak eta ondare irabazi eta galerak eta etekinak jaraunspenean bertan eratzikiko dira, eta Zergaren Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera zergapetuko dira.

3. Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, 140. artikuluan ezarritako ezkontza ondoko erkidegoaren errentak, testamentu ahalordea baliatzeko zain daudenak, erdi bana eratzikiko zaizkie ezkontide alargunari eta testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspenari, artikuluko honen aurreko idatz zatietan ezarritako arauekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta bikoteak hautatutako ondare araubide ekonomikoari Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen manu hori aplikagarri bazaio.”



Hiru. 113. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“113. artikulua. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenak eta errenta eratzikipeneko araubidea duten erakundeak.

1. Errenta eratzikipeneko araubidea duten erakundeek, jarduera ekonomikoak egiten badituzte, egindako jarduerari dagozkion liburuak soilik eraman behar dituzte, beren bazkide, jaraunse, erkide edo partaideei egin behar dieten etekin eratzikipenaren kalterik gabe.

2. Artikulu honetako aurreko idatz zatian ezarritako arau bera aplikatuko zaie testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenei, edo jarduera horien etekinak egozten dituztenei, jarduera ekonomikoren bat egiten badute, horrelakoen etekinen eratzikipenari buruz Foru Dekretu honen 55. artikuluan ezarritako arauak gorabehera.”

Lau. Xedapen gehigarri berria gehitu da, zortzigarrena. Hona testua:

“Zortzigarrena. Testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenen araubidea.

Bat. Ohiko etxebizitza zer den.

Zergaren Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren bigarren zenbakiko 2. idatz zatiko bigarren lerroaldean ezarritakoaren ondoretarako, ohiko etxebizitza kalifikatzeko Zergaren Foru Arauaren 87. artikuluko 8. idatz zatian eta Foru Dekretu honen 61. artikuluan jasotakoa beteko da.

Bi. Zerga oinarria zehaztea.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua erabiltzearen zain dagoen jaraunspenari dagokion zergaren zerga oinarria zehazteko, jarduera ekonomikoen etekinak testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren bidez jasotzat joko dira, nahiz eta testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspenak ez bete kasuan kasuko jarduera ekonomikoei atxikitako ekoizbideen eta giza baliabideen norberaren konturako antolamenduan zuzenean, pertsonalki eta maiztasunarekin parte hartzeko betekizuna.

2. Era berean, testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagokion zerga oinarrian sartuko dira etekinak, ondare irabazi eta galerak, eta errenta egozketak, Zergaren Foru Arauan eta Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera”.

Hiru. Saldo negatiboen konpentsazioa.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jaraunspenei dagozkien oinarri likidagarri negatiboak, jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, oinarri likidakor orokorraren ondare galerak, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu ez diren kuotako



kenkariak bakar-bakarrik konpentsatu daitezke, zerga araudiak baimentzen duenean, jaraunspen horiei dagozkien oinarri likidagarri positiboekin, jarduera ekonomikoen etekinetatik datozen saldo positiboekin, oinarri likidakor orokorraren ondare irabaziekin eta kuota positibo osoekin.

2. Beraz, testamendu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspena iraungitzen bada, dela ahal hori bete-betean baliatzeagatik, dela iraungipena dakarren beste kariren batengatik, jaraunspena iraungitzen den unean praktikatu gabeko kuota kenkariak, oinarri likidakor orokorreko ondare galerak, jarduera ekonomikoen ondoriozko etekinen saldo negatiboak eta oinarri likidakor negatiboak kausadunek ezin izango dituzte konpentsatu ez gauzatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren banakako autoliquidazioetan.

Kasu horietan, aipatu kontzeptu negatiboak konpentsatzeko eskubidea galduko da, eta egiteke geratuko dira, aipatu jaraunspenaren azken zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autoliquidazioa gauzatutakoan.

Lau. Aitortu beharra.

1. Testamendu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspenak nahitaez aurkeztu beharko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autoliquidazioa. Bertan jaso beharko dira eragiten dioten datu guztiak.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar duten gainerako zergadunentzat Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onetsitako eruedetan aurkeztuko da autoliquidazio hori, eta zergadun guztientzat ezarritako arauak beteko dira.

3. Halaber, autoliquidazioa aurkezteaz batera, zerga zorra zehaztu beharko dute, eta dena delako zergaldian Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zergadun guztientzat ezarritako lekuan, eran eta epean ordaindu beharko dute.

4. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspenari artikuluko honetako aurreko idatz zatietan ezarri zaizkion betebeharrak betetzea jaraunspenaren administratzailearen edo gozamendun ahalduaren ardura izango da. Hala bada, hark sinatuko du autoliquidazioa, eta berak egingo du zerga zorraren sarrera.

5. Era berean, zerga ordaintzeko ardura izango du, ordezeko gisa, administratzaileak, testamentu ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenetan, edo gozamendun ahalduak, gozamen ahaldua baliatzearen zain daudenetan.

Bost. Konturako ordainketak.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dagoen jaraunspenak bete egin beharko du Foru Dekretu honetan ezarritako ordainketa zatikatuen, konturako sarreraren eta atxikipenen araubide orokorra, eratziki behar zaizkion etekinekin lotuta.



2. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalorduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenari dagozkion ordainketa zatikatuak praktikatzean, aurreko ekitaldietako jarduera ekonomikoen etekintzat joko dira, beharrezkoa denean, jaraunspenaren kausatzaileak dagozkion jarduera ekonomikoa gauzatzean eskuratu dituenak.

3. Foru Dekretu honen VII. tituluko II. kapituluko lehenengo sekzioan eta 83. artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalorduna baliatzearen zain dagoen jaraunspena ondorengorik gabeko zergadun bat dela ulertuko da.

4. Atxikipenak, konturako sarrerak eta ordainketa zatikatuak behartuta dauden aldetik, testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalorduna baliatzearen zain dauden jaraunspenek beren gain hartuko dute diru sarrera Arabako Foru Aldundiari egiteko obligazioa, eta beste obligazio hori ez betetzeak ez ditu salbuetsiko diru sarrera egiteko betebeharrak honetatik.

Ondore horietarako, aipatu betebeharrak betetzen direla zaintzeko ardura testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspenaren administratzailearena edo gozamendun ahalordunarena izango da, eta bera arduratuko da dagozkion zenbatekoak Foru Aldundian sartzeaz, ordezeko gisa.”

3. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga.

Bat. Aitortu beharra.

1. Testamendu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalorduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenak nahitaez aurkeztu beharko du Ondarearen gaineko Zergaren autolikidazioa. Bertan jaso beharko dira eragiten dioten datu guztiak.

2. Ondarearen gaineko Zerga ordaindu behar duten gainerako zergadunentzat Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onetsitako ereduetan aurkeztuko da autolikidazio hori, eta zergadun guztientzat ezarritako arauak beteko dira.

3. Halaber, autolikidazioa aurkezteaz batera, zerga zorra zehaztu beharko dute, eta dena delako zergaldian Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zergadun guztientzat ezarritako lekuan, eran eta epean ordaindu beharko dute.

4. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalorduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenari artikulua honetako aurreko idatz zatietan ezarri zaizkion betebeharrak betetzea jaraunspenaren administratzailearen edo gozamendun ahalordunaren ardura izango da. Hala bada, hark sinatuko du autolikidazioa, eta berak egingo du zerga zorraren sarrera.

5. Era berean, zerga ordaintzeko ardura izango du, ordezeko gisa, administratzaileak, testamentu ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenetan, edo gozamendun ahalordunak, gozamen ahalorduna baliatzearen zain daudenetan.



Bi. Erakundeetako partaidetzen salbuespena.

Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dauden jaraunspenen kasuan, erakundeetako partaidetzen edo ondare elementuen titular badira, betetzat joko dira Ondarearen gaineko Zergaren Foru Arauaren 6. artikuluko Bat idatz zatiko lehenengo lerroaldean ezarritako baldintzak eta zergadunak nahitaez erakunde batean zuzendaritza eginkizunak bete behar dituela dioen betekizuna, 6. artikuluko Bi idatz zatiko d) lerroaldean jaso, baldin eta beren administratzaileak edo gozamendun ahaldunak horietara egokitzen badira.

4. artikulua. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga: Aitortu beharra.

1. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenean nahitaez aurkeztu beharko da dagokion udalean ordenantza egokiak zehazten duen aitortpena, eta bertan, dagokion likidazioa egiteko ezinbesteko zerga elementuak jaso beharko dira.
2. Aitorpenarekin batera, zergapeko egintza edo kontratua agerrarazteko egindako agiria aurkeztu behar da nahitaez.
3. Testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalduna baliatzearen zain dagoen jaraunspenari artikulua honetako aurreko idatz zatietan ezarri zaizkion betebeharrak betetzea jaraunspenaren administratzailearen edo gozamendun ahaldunaren ardura izango da. Hala bada, hark sinatuko du aitortpena, eta berak egingo du zerga zorraren sarrera.
4. Era berean, zerga ordaintzeko ardura izango du, ordezeko gisa, administratzaileak, testamentu ahalordea baliatzearen zain dauden jaraunspenetan, edo gozamendun ahaldunak, gozamen ahalduna baliatzearen zain daudenetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Dekretu hau indarrean jartzean, indarrik gabe geratuko dira bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean Foru Dekretu hau.

Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.



Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia

José Luis Cimiano Ruiz

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu
Saileko foru diputatua

Teresa Viguri Martínez

Ogasun zuzendaria